

SECCION AMENA.

NAGUZIYA ETA MAIZTERRA.

Orain dala lau aste
Gizon bat bizi zan
San Bizente atzean
Bost-garren bizitzan.
Gizon au zan chit lasai
Pasatutzen zana,
Ezer gausa gantikan
Estutzen etzana;
Ala errentik iñoiz
Pagatzen etzuben,
Eta eche jabea
Azar-azo zuben.
Egun batean joan zan
Au berarengana,
Esanaz: «Ez da ona
Darabiltan lana;
Beti abisuka ta
Kobratu eziñez,
¿Zér dezu, ill al ziñan
Edo zaude miñez?»
—Eranzun ziyon: «Jauna,
Sano samar nabill,

Bañan gure artean
Dirurik ez dabill.»
—Bada nik ez nezake
Dirurik eragin,
Eta beazu modu
Pagatzeko egin,
Edo bestela dizut
Gaur ematen itza,
Segituban libratzen
Banazu bizitza,
Egingo dizutala
Zor dana kitotzat;
Eskeñi charra dala
Iruitzen etzat.»
—«Ez, ez, ez, jauna ez naiz
Conforme orrezaz;
¿Zertan apuratzen da,
Daukadan pobrezaz?
Igo bizait errenta
Nai duben guziya,
Bañan ez naiz irtengo,
Ni, ez, naguziya.

R. ARTOLA.

*
* *

AZKENENGO ITANASIAREN ASKANTZA.

Lendabizi arkitu,
Nubena zan *ama*,
Eta bere ondoren
Segituban *arma*.
Letrak naztuaz berriz
Asi nitzan *billa*,
Eta osatu nuben
Istanteko *illa*.
Marta eta *Maria*
Andikan segiran

Batere uste gabe
Suertatu zaizkidan.
Gero argitaratu
Zitzaidan *matralla*,
Eta guztiz garbiro
Urrenguan *malla*.
Azkeneko izena
Nola zan *amilla*,
Pentsatu nuben zala
Dena MARATILLA.

V. IRAOLA.